



Toloño monasterio zaharraren harriak.
JOSEAN GIL GARCIA

Toloño mendigunea paradisu natural bat da, eta biodibertsitate askotarikoa du. Paisaia ederrak ikus daitezke inguruetan txango bat eginez gero, eta ondare historiko aberatsaz goza daiteke.

Toloño mendigunean, Arabako Errioxan

Bastidatik abiatuta, ibilaldi politik egin daitezke Toloño mendilerroan zehar, inguruan dauden mendiak, haitzuloak eta trikuharriak ezagutzeko, eta paisala ederrekín liluratzeko. Biodibertsitate askotarikoa duen inguru da, eta Arabako Errioxako labore soroak ere ikus daitezke.

Toloño mendilerroa ekialdetik mendebaldera hedatzen den lerro gorabeheratsu bezain malakatsua da. Mendilerroan barrena, zenbait haitzulo daude, eta mendi hauek: Peñalta-Bernedo eta Kripan herrien artean gailentzen da-, Palomares-Guardiatik eta Kripan aldetik ikusita, tontorrak harritzko esku sendoa dirudi, atzamar eta guzti-, Larrasa-gailurra labainkorra da- eta Rivas.

Toloño mendilerroan mendebaldera egin ahala, eta behin Rivas mendatea zeharkatuta, Toloño mendilerroak izen bereko mendiguncari bidea uzten dio, Jugalez ibaia-aren arroaren hegoaldean, Errioxako labore soroen artean. Toloño mendiaren kaskoa karsitkoa da, ikusgarria. Zenbait bide daude gailurre-ra iristeko. Gailurretik gertu, Toloño monasterio zaharraren harri historikoak ikus daitezke.

Bastida

Bastida herria (www.labastida-bastida.org) ederra da. Erdi Aroko hiribildua. Besteak beste, ikusteko modukoak dira harresia, Kristo Santuaren basiliza, Jasokunde Andre Mariaren eliza, Paterninatarran jauregia, Kale Nagusiko jauregia eta udaltxea. Turismo bulegoan atsegin handiz ematen dituzte argibide guztiak inguruetan txangoak egiteko, otorduak egiteko eta ostatu hartzeko, telefonoz (945-33 10 15) eta posta elektronikoz (turismo@labastida-bastida.org).

Guardia

Arabako Errioxan bertan, bisitatzeko moduko beste herri bat da Guardia (www.laguardia-alava.com). Muino baten gainean dago, eta harresi batek babesten du herriaren zatirik zaharrena. Hirigune historikoa monumentu multzo izendatuta dago. Mahastiak ditu behealdean, ardoa baita hango bereizgarri nagusietako bat, baita upategiak ere.

Biotopo babestu bat ere badu inguruan, eta, besteak beste,

urmaelak daude. Horrez gain, inguruan ere badira trikuharriak, La Hoyako aztarnategia - orain milaka urte eraiki zuten herrixka bat - eta ibilaldi bat egin daiteke horiek guztiak ezagutzeko.

Herrian bertan, eraikin ikusgarriak daude, Erregeen Andre Mariaren eliza eta Abat dorrea, besteak beste. Hain zuzen, azken horrek garrantzi handia izan zuen herriko harresiak babesteko orduan, antzinako gaztelu bat baita.

Halaber, ikusi beharrekoa da plaza nagusiko erlojua. Eguerdiko hamabietan, urteko egun guztietan, Katximorro pertsonaia eta bi dantzari irteten dira erlojutik, San Joan kalejiraren doinu dantza egitera. Herriko jaiak ere era horretan hasten dituzte, ekainaren 23an.

Guardiako Turismo Bulegoa Kale Nagusiko 52. zenbakian dago, Garcetas etxean. XVII. mendeko eraikin dotore bat da, duela gutxi zaharberritua.

Toloño mendilerroan zehar ibilaldi politik egin daitezke, inguruko mendiak, haitzuloak eta trikuharriak ezagutzeko

Toloño mendiaren kaskoa karsitkoa da, ikusgarria. Gailurretik gertu, monasterio zaharraren harriak daude

Herriaren inguruko informazio guztia ematen dute telefonoz (945-60 08 45) eta posta elektronikoz (turismo@laguardia-alava.com).

Oion

Oion herria (www.ayuntamientooion.com) ere hurbil dago. Inguruan mahastiak daude, eta herrian, bertiz, ondare aberatsa: elizak, jauregiak eta harresiak. Besteak beste, Jasokunde Andre Mariaren eliza, Mahastietako Ana Birjinaren ermita, Portuko Markesaren jauregia eta Buretako Kondeen jauregia.

Herriaren historian murgildu nahi izanez gero, museo etnografikora bisita egin daiteke. Batez ere, laborantzarekin lotutako objektuak ikus daitezke, inguruko jardunaren isla, eta, guztira, 297 pieza daude. Bisita doakoa da, baina aldez aurretik adostu behar da udalarekin, hango telefono zenbakira deituta.

Oiongo udaltxean herriari buruzko informazio guztia jaso daiteke. Telefonoz (945-62 21 90) eta posta elektronikoz (info@ayuntamientooion.com) ere ematen dute.